

“ ”

Kazetaritzari ez zaio sekula literatur baliorik eman

Koldo Izagirre

ARGIaren egitekoen zerrendan tik bat gehiago. Duela kasik hamabost urte bururatutako ideari forma ematea kosta da, baina eman zaio, eta inprentatik irtetear behar du dagoneko. Euskal prentsak 1869tik 2000ra ekarritako zenbait kronika gogoangarriren bilduma egin du Koldo Izagirrek (Altza-Pasaia, 1953).

“Harribitxiak” dira, historia ulertzeko gako, besteren artean Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak euskaraz ere kontatu zirenen adierazle. Oro har, behin baino publikatu ez diren kronikak berrargitaratu ditu ARGIAk *Zaldi bat ihes garrezko zelaian* liburuan. Kazetaritza testuak izan arren, literatura dute oinarrian.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA



Kazetaritza testu guztien edo gehienen gisara, kronikak ere bizi laburra izan ohi du. Egun jakin bateko alean argitaratu eta hemerotekan sartzen dira.

Kazetaritzak duen gaitza da hori. Egunerokoa, egunerokoa, egunerokoa... eta ez dago denborarik. Ez dago etorkizunik, ez iraganik. Beti da unean unekoa, edo bezperakoa baina aktuala, etengabe.

Azken finean, kazetariaren lana ez da literaturatzat hartzen, eta kazetariak berak ere ez du horrela ikusten bere burua. Eta bai, literatura da. Hor daukagu arazoa.

J. B. Bilbao Batxi-ren idazkiak jaso zenituen *Hau mundu arrano hau liburuan*, Iñigo Aranbarrerekin batera. Honela zenioten kontrazalean *Batxi-ri buruz*: “Berrehun kronikaren egile katalogatu gabea. Idazletasuna ukatzen zaion marinela”. Orain, esadazu, “marinela” beharrean, esan genezake “kazetaria”?

Adibide bat jarriko dizut, neronek ere kontu hau ulertzeko erabiltzen dudana. Irudigileek sekulako garrantzia izan dute kazetaritzan; irudiz interpretatu ohi dute aktualitatea. Ikusi aspaldiko ARGIAko argazkiak, ikusi oraingo lanak hedabideetan, Iñaki Martiarena *Mattin*-enak, Eider Eibarrenak, Olariagarenak, *Zaldiero*-renak eta beste askorenak. Inork ez du esango artelanak ez direnik.

Eta kazetaritza testuekin, aldiz...

Hain daukagu barneratuta egiten duen horrek biharamunean ez duela balio...

Ezerezean geratzen da?

Liburua eta literatura nahasten ditugu, literatura liburuetan bakarrik azaltzen dela uste dugu. Orain, liburu honekin, literatura bihurtuko zarete (barre egiten du). Niretzat, kazetaritza, literaturaren genero bat da.

Liburuei ematen diegu zilegitasuna? Obsesioa dugu liburuak egitearekin?

Hala dirudi, obsesioa dugula. Liburu gutxi eduki izan ditugu historikoki eta horretan jarrita gaude. Baina agerkari asko izan ditugu, eta hor ere literatura daukagu. Horri ez zaio erreparatzen.

Astirik eza aipatu duzu lehen. Ez ote da gertatzen kazetariak ez duela astirik bere testuak literatura mailara igotzeko?

Zergatik igo behar ditu? Kazetaritza beheragoko mailan dago ala? Idazleok kazetaritza egin genezakeela uste duzu? Bi genero dira. Kazetaria idazlea da. Egunero idazten du gainera. Batzuetan ondo eta bestetan ez hain ondo, idazleok bezalaxe.

“ ”

Irudigileek sekulako garrantzia izan dute kazetaritzan; irudiz interpretatu ohi dute aktualitatea. Inork ez du esango artelanak ez direnik

Bilduma honetan ez duzu hautatu *Batxiren* ezer, *Lizardiren*ik ere ez...

Gehiago jo dugu komunikabideetan soilik argitaratu diren horietara, ezagunak ez diren testuetara. Sekulako materiala dago, eta uste dut dena dagoela irakurtzeko. Ahozko literatura izan balitz, hobe togoordeko genituzke seguruenik.

Zergatik?

Batetik, Antonio Zavalak sortu eta elikatutako Auspoa saila daukagulako kontsultagarri. Bestetik, kantuak bertsoa hilezkor bihurtzen duelako. Kantariek jakin izan zuten altxor hori baliatzen. Hori da ahozkotasanaren abantaila, transmititu egiten dela. Idazleok, ordea, zokoratua daukagu geure aurrekoen lana. Historiarik ez bagenu bezala.

Baliorik ez zaiela ematen iraganeko argitalpenei...

Kazetaritzaren balio soziala aitortu izan da, baina gutxitan eman zaio literatur balioa. Lizardi, Kirikiño, Etxepare medikua... Zenbat gehiago? Ez da bakarrik kroniken kasua, berdin gertatzen da oro har artikuluekin, eztabaidekin, editorekin...



DANI BLANCO



DANI BLANCO

Literatura gehiago ala gutxiago, baina aipatu didazu, *Zaldi bat ihes garrezko zelaian* (2023, ARGIA) liburura ekarritako kronikak “literatura ugarikoak” direla.

Saia gaitezen kronika definitzen. Izan daiteke fikziorik gabeko ipuin bat, baina izan daiteke kazetaria protagonista duen erreportaia ere. Hor ageri da nortasuna, kazetariak kontatzeko duen trebetasuna. Zenbat kronika, hainbat estilo. Gure literaturaren generorik aberatsenetakoa.

Historia ezagutzeko beste modu bat ere bada, ezta?

Kronika hauei esker ezagutuko dugu, besteak beste, zenbat gerra bizi izan ditugun gurean: 1936koa, Algeriakoa, Bigarren Mundu Gerra, Lehenengoa... Eta atzerago jo ez dugulako –liburuko kronikarik zaharrena 1869koa da-. Bai, historia ulertzeko material bat da, besteak beste.

Banaka hartuta, irakurterrazak ez ezik, oso kronika interesgarriak dira garaian kokatu eta ordukoak

“ ”
Baliabide literario bat onartzen du kronikak, eta ikuspen plastiko bat ematen digu irakurleoi

ezagutzeko.

Bada Julene Azpeitiaren mini-kronika bat... Amabirgina baten erromeria Andaluzian. Halako egunean, urtero, base-lizatik eliza nagusira daramate. Baina oraingoan komunistak eta sozialistak ere batu dira prozesioan, eta *Casa del Pueblo*-ra nahi dute eraman, ez eliza nagusira. Mehatxuak, bultzakadak... Eta honela amaitzen da kronika: “Ama Birjinak jo eban eleiza nagusia Kantauri itsasoan galernak harrapatzen duan itsasontzi gaxuak portua jotzen duan erara”.

Baliabide literario bat onartu du kronikak, eta ikuspen plastiko bat ematen digu irakurleoi. Julene Azpeitiak lekua, garaia eta giro politiko-erlijioso bat erakusten digu era objektiboan, baina inplikazio estilistiko bat kometitzen du amaieran. Irudi horrek, amabirgina-galerna-eliza loturak dimentsio erdi epikoa erdi tragikoa ematen dio gertakari. Indartu egiten du kristau-komunista-sozialisten pasadizioa.

Badago intentzio bat.

Intentzionalitatea dago eragiteko, eta hori ere literatura da. Erakustaldi linguistikoa ere egiten dute horretara jarri gabe. Generoak nahasten dituzte, margolariek paletan egiten duten bezalaxe.

Ander Arzelus Luzear-en testu bat aipatzearen, 1928koa da, nola kontaktzen duen “ekaitz beldurgarriaren” etorrera, Donostiako moilatik beha dela.

Azpigenero asko ditu kronikak. Itsasoa, itsastarrak, marinolak, galernak... Bertsolaritzan asko landu da kronika hori. Kirola zer esanik ez, estropadak, sega

apustuak, aizkolarienak, pilota... Krimenak ere bai, bertso sail bikainak dauzkagu, Hamalau heriotzarena, Jose Tejeriarena... Duela egun pare bat, Inazio Mujikarekin hizketan, *Luzear*-ek zenbat lan dituen eta zeinen ezezaguna den aritu ginen.

Gazte bat nola urkatu zuten ere kontatzen da *Legezko herioa* izeneko kronikan.

Amerikan idatzia dago, 1898ko urtarrilean.

Oso kontakizun berezia da, xehe-tasun asko ematen ditu. Idazkeragatik, izan liteke ingelesetik euskaratua. Rio de La Platako *Eskual Herria* aldizkaritik jaso nuen nik. Gorka Bereziartuak komentatu zidan arraroa egiten zitzaizola Los Angeleseko albiste hori Rio de la Platako batean agertzea. Azkenik, Imanol Muruak abisatu zigun Kaliforniako *Eskual Herria* berriketaria-n azaldu zela lehenik.

Testuak moldatu behar izan dituzu zeozer?

Ez, testuak bere hartan daude. Inprimategiko oker nabarmenak zuzendu eta ortografia geure garaira egokitu, horixe izan da maneatu dugun bakarra. Esaten hasita esan dezadan: Juan Luis Zabalak irakurketa xehea egin zidan, eta ortografian ez ezik, kopiaketan egindako akatsak zuzendu zizkidan. Gorka Bereziartuak hautaketan eta beste detaile askotan lagundu du.

Azterlan galanta egin duzu, eta egin daiteke gehiago ere.

ARGIAk atera zuen duela urte batzuk *Zeruko Argia*-n egindako elkarrizketez osatutako liburu bat, Pilar Iparragirren lana izan zen. Horrelako alor asko dago lo. Oraindik Lekarozen egiten zenean, kronika mordoxka argitaratu zuten Txinara misiolari joandakoek bidalitako testuekin. Oso interesgarriak dira. Pentsa.

Ahanturan galdutako testuak dira.

Bazirenik ere, inork gutxik jakingo zuen. Nahiz eta gaur egun asko erraztu den testuetara iristea. Ez daukagu aitzakiarik horretan.

Literaturaren historia aztertu beharko bagenu, hauek bezalako kazetaritza testuek puska handia



“ ”

Intenzionalitatea dago eragiteko, eta hori ere literatura da. Generoak nahasten dituzte, margolariek paletan egiten duten bezalaxe

hartuko ligukete, ala?

Ez da kronikekin soilik gertatzen. Ipuinak, esaterako, euskal literaturaren historia lanetan oso berandu sartu dira. Urte luzez aztertu da literatura ipuin modernorik ez balego bezala. Mirande, Aresti eta kito. Lehen esandakoa: ez badago liburuan, ez du balio.

ARGIAren aspaldiko zeregina zen lan hau egitea. Liburuaren editore Gorka Bereziartuak kontatzen du hitzaurrean, askoren oroimenean

geratu zen hitzaldia eman zenuela ARGIAren 90. urteurrenean, 2009ko urtarrilean.

Hitzaldi “mitikoa”, bai (barre egiten du). Hor sortu zen hasierako ideia... Banekien zer zegoen, zer etorriko zen, eta hasia nengoen testuak bilatzen.

Lana hartu duzu.

Bai, baina lan atsegina da. Pazientzia apur bat baino ez da behar. Eta egia esan, testu interesgarriak ez dira zailak atzematen prosa moralen eta sermoi politikoen artean, erraztu egiten dute lana (barre egiten du).

Izenburua bera, *Zaldi bat ihes garrezko zelaian*; liburuako testu batetik dator.

Gernikako bonbardaketa kontatzen du Joseba Zubimendik –*Gernika erraustean, lekuko nintzen*–. Hori ere badaukagu, Gernikako bonbardaketaren dokumenturik zinezkoena. Joseba Zubimendi... kazetari handia, idazle bikaina. ●

